

## EGUNEKO PERTSONAIA

Joseba EGIGUREN / Audio

**Sebastian Brown: "Londresen hezi naute baina bihotza Euskal Herrian daukat"**

Ingeles honek urtebete egingo du Bizkaiko kostaldean euskara ikasten

**A**zken bolada honetan euskaldun asko joaten da Britainia Handira eta Irlandara gero eta beharrezkoa den ingelesa ikastera. Sebastianen ama ere Okondo utzi eta gauza bera egitera abiatu zen Londresera, orain hogeitamar urte. Bertan ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Bere semerik gazteenak, Sebastianek, kontrakoa egin du ordea, Londres utzi eta Laudiora etorri da euskara ikasteko, bizkaiera ikasteko.

Egunotan oporretan dago eta Laudion duen familiarengana jo du; ingelesa irakatsi eta euskara ikasteaz gain, parrandan ibiltzeko astirik ere ateratzen du, euskaltzale bezain gautxoria bait da. Sebastian Brown Apraizek trikitilaria du aitita. Londres gustokoa izanik ingelesak orokorrean ez zaizkio gustatzen, "ez dira jatorrak, gurago dot Euskal Herria". Zerbeza kontuetan, aldiz, Londreseko pubetako garagardo beltzak hemengo kañak baino hobeak direla dio, aurrean duena ahora daraman bitartean. Txikitatik etorri izan da Laudiora bere sendia eta lagunak bisita-

tzera. Horietako batzuk gaztelera ez zen beste hizkuntza batean mintzo zirela ohartuta, duela bost urte euskara ikastea erabaki zuen. Londresen jaioa eta hezia izan arren, bihotza Euskal Herrian dauka; euskara batua ikasi du baina artifizialegia dela dio: "Bizkaiera ikasi gura dot batua baino errezago eta interesgarriagoa delako. Kaleko euskara ikasi gura dot, euskaltegietan erabiltzen ez diran gauza asko irakasten direlako", diosku bere azentu bitxiarekin.



Argazkia: Xouse Simal.

“Bizkaiko kostaldeko herriren batera bizi-  
tzera joango naiz, Bermiora segurue-  
nera, bertako euskara sano gustatzen  
zaidalako, berezia da nire ustez”. Urte-  
bete egingo du bertan eta datorren ur-  
tean Londresera itzuliko da, ikasten ari  
den unibertsitateko karrera amaitzeko.  
Ikasketa Hispanikoak izeneko karrera  
dihardu ikasten; horrez gain, ingelesa,  
portugesa, euskara eta espainola men-  
peratzen ditu eta ketxua eta pertsiera  
dakizki.

Sebastian Britainia Handiko Euskal El-  
karteko idazkaria da. Elkartea sortu be-  
rria da eta berrogeitamar bazkide ditu,  
baina bera pozik dago duela gutxi egin-  
dako euskal afari batean 120 lagun bil-  
du zirelako. Sebastianek badaki Eus-  
kal Herrian jaiotako asko baino eus-  
kaltzaleagoa dela. Edalontzian gera-  
tzen zaion garagardo apurra irentsi eta  
zera esanez amaitutzat jotzen dugu  
berbaldia: “Espainieraz euskaraz bai-  
no hobeto egiten dut berba, baina ez  
dot etsiko euskara espainola baino ho-  
beto jakin arte”.

## **SOSLAIA**

### ***Hizkuntzetan laioa***

Hogeitabat urte dituen  
londrestar honek euskal odola  
ere badu bere zainetan,  
bigarren abizena Apraiz bait du.  
Hala ere etxean ez du beste  
euskaldunik, ama Okondokoa  
izan arren. Sebastianek sei  
hizkuntza dakizki, euskara  
barne, baina batuari artifizia-  
la deritzenez, kaleko euskara ikasi  
nahi du. Bizkaiera ikastera etorri  
da eta Gernika edo Bermeo  
aldean urtebete egiteko asmoa  
du, oraindik ez du erabaki.  
Euskal dialektologia ikasi duela  
dio, baina gehien gustatzen  
zaiona Bizkaiko euskaldun  
zaharren grabazioak entzutea  
da.

**Aimar Irigoien, Errezilgo indartsua**

Isil isilik dabil Aimar azken egunotan, aseinezko grinak sendaezinezko minak bait dira. Gaurko eguna noiz iritsiko zain izan da, egunak kontatzen, baina alferrik. 25 kiloko harria jasotzeko asmoa zuen, errekor moduan, Aian antolatutako jaialdian baina Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak, eta Aiako Udalak ondotik, debekatu egin dute erakustaldia, 10 egun aurretik eta programak lau haizeetara banatuta zeudenean. “Aian ateratzen ez didate uzten eta pena hartu dut kristona”, esan digu 5 urteko erreزيلdarrak. “Zergatik ez ba?”, galdetzen du.

“Ez dutela parte hartuko, errekorrik ez dutela onartuko esan dute Federazioek, erantzukizunik ez dutela nahi –azaldu du Aimarren amak- Lege aldetik ezer zehaztuta ez dagoen arren, bost urterekin hogeitabost kilo jasotzea demasa dela diote. Medikuen ustez onartezina. Baina zergatik ez ziguten hori hasieratik esan, zergatik eman ziguten lehendabizi baimena eta hama-bost egunen buruan iritzi aldaketa hau?” Jaialdiarekin aurrera egin nahi izan dute Irure Haundi baserrikoek; federatu gabekoa izanik, sarrera kobratzerik ez zuketene eta probalekuaren



Argazkia: Juan Carlos Ruiz

alokairua, materiale gastuak eta profesionalen dietak beren poltsikotik ordainduko zituzketen. Proposamen hori egin zioten alkateari “baina ezta debalde ere” gehitu du Mari-Jexusek.

Jendartean zabaldutakoak eman die minik handiena Irigoien darrei: “Umea esplotatu nahian gabiltzan kontua ate-

ra dute. Dirua sartu dute tartean, gu lur azpian jartzeko". Lau urterekin debuta-  
tu zuen Aimarrek Bedaion, hamabost  
kiloko harriarekin, eta geroztik lauzpa-  
bost emanaldi egin ditu herrietako fes-  
tetan. "Dohainik ibili da beti. Sekula ez  
da umeagatik pezeta bat kobratu" azpi-  
marratu du. Umeari harrijasotzen uzte-  
agatik gartzela merezi dutela askok  
esan die senar-emazteoi. "Nik beti esa-  
ten dut famoso baten semea izan balitz  
igual eskubide gehiago izango zukee-  
la. Adin berekoak ikusi ditugu, Perure-  
naren semea ETBn behin, eta haren  
gain ez zen kritikarik egin" diote. "Gai-  
nera, berak horretarako grina badauka  
nola galeraziko diogu?".

Aimar ez da gainontzeko umeak beza-  
lakoa: hiru urtekin hasi zen harriei hel-  
tzen, eta harri itxurako egurrezko en-  
bor txiki bat oparitu zioten. "Beste jos-  
tailurik ez zen berarentzat, beste edo-  
zerrekin baino gehiago gozatzen zuen  
harekin". Ez ohizko gauza mordo bat  
egin ditu Aimarrek, harrigarriak bene-  
tan, gurasoek liburuxka batean apun-  
tatzen dituztenak: hiru urterekin, txerri-  
kumeari berak eusten omen zion amak  
txertoa jarri bitartean; behiei askotan  
ematen die frente makilarekin; ikuiluko  
simaurre guztiak atera ei ditu sardea eta  
karretilarekin, ama konturatu orduko.  
"Zain ez banagokio beti doa indarkeria-  
ra. Bere gainean egon behar dut, nire-

tzako lan gogorrak bait dira eta bera-  
rentzat zer esanik ez". Astean behin  
entrenatzen du aitarekin. "Egunero egi-  
ten duena ikusita astean bi-hiru altxaldi  
egitea ez da nekeza berarentzat.  
Entrenamenduan ez da behartzen".

## SOSLAIA

### *Grina odolean*

Bizia, nerbio handikoa, asto sa-  
marra da. Lagunek indartsua  
dela esaten diote, «hala naiz  
eta» dio berak. Eskolan saltoka  
erori eta min hartu du eskuan,  
«baina oso gutxi egin dut ne-  
gar». Baserritarra eta harrija-  
sotzailea, «bietakoren bat» iza-  
tea gustatuko litzaioke, «txerriak  
eta behiak gogoko ditudalako  
eta harriak jasotzen oso ondo  
pasatzen dudalako». Harriak  
ezkutatu egiten dizkiote, hasie-  
ran noiznahi hasten bait zen.  
«ez kanpoan ibili gero! Etxean  
bakarrik, gerrikoa ondo estuta»,  
esaten diote gurasoek eta berak  
ondo betetzen du agindua. 'Ume  
honek odolean dakarki grina'  
esaten du Aimarren aitonak,  
harrijasotzaile entzutetxua izan-  
dakoak.

## EGUNEKO PERTSONAIA

Olatz ARRIETA / Hondarrabia

### ***Rosario Camps: “Ez dakit nolatan bizi garen hainbeste pertsona margoetatik”***

Aitaren estudioan, eta oraindik arrastaka zebilela, egin zituen lehen marrazkiak. Pintzela izan zen eskutan harturiko lehenengo gauza eta horregatik ez da hain harrigarria eskolan ikasgaiak baino margoak gustokoago izatea. “Askotan, klasean adi egon beharrean, arkatza hartu eta irakasleen marrazkiak egiten nituen”.



Argazkia: Carlos VILLAGRAN

Birraitona, osabaitona eta aita margo-lari izan zituen. Etxean margoetatik bizitzea ziurgabea zela komenitzen saiatu ziren eta merkataritza ikastera behartu zuten. “Margotzea pertsonaia xeble eta arraroen gauza zela esaten zidaten. Baina margolari familia batean jaio nintzen eta zaila zitzaidan bide horretatik urruntzea” esan du, margotzen zergatik jarraitu zuen argituz. 1946an, 20 urte zituelarik, egin zuen lehen erakusketa Donostian, beste Campstarrekin batera. “Aitari konpetentzia egiten hasi nintzaion eta tirabiraren bat ere izan genuen” dio.

60ko hamarkadan Brasilera abiatu zen anaiari bisita bat egitera eta edertasun hark erakarrita hiru urte eman zituen bertan. Hiriburuko aireportuan itzultzailerik lana egiten zuen bitartean, margo eta erretratu ugari egin zituen. Horien artean Castelo Branco bertako presidenteari eginikoa aipatzen du. Bidaia ugari egin ditu Brasilera eta asko maite du, beharbada bertara eginiko bidaia ugari horietako batean, margoen gain, begi handi eta ilunak zituen neskatxa bat ekarri zuelako besoetan, adopzioan.

Alaba amaren antzera margo eta pintzel artean hazi da, baina ez du margo-

laritzarekiko zaletasunik erakutsi. "Txikitan nik klaseak ematen nituen bitartean marrazten ibiltzen zen alaba eta nahiko ongi egiten zuen gainera. Baina margoak seriozki hartzeko momentua errebelatzeko adinarekin batera iritsi zitzaion eta kontrakoa esateagatik, margotzeko intentziorik ez zuela esan zidan" erantsi du.

Egunero pintzelada batzuk ematen dituen margolaria da Rosario. Hala ere, azken aldian ez du astokoaren aurrean esertzeko astirik izan, erakusketak dirrela eta. Erakusketa bat egitetik etorri berria da Parisetik.

Hango galerietan ikusi dituen margo modernoak ez zaizkio asko gustatu eta gaur egun margolaritza abstraktoari margolaritza figuratiboari baino aukera gehiago ematen zaizkiola pentsatzen du: "Galerietako jendea interesatua goa dago gauza abstraktu eta zentzugabeetan. Jendeak ez du ezertxo ere ulertzen eta, beraz, aprobetxatu egiten dira".

Egun margolariak asko ugaritu direla iruditzen zaio Rosariori. "Hainbeste margolari gabiltza, ez dakidala nolatan bizi garen guztiak horretatik. Lasterketa antzeko bat bihurtu da; guztiok nahi dugu irabazi eta erakusketak egin. Beste batzuk baloiari ematen dioten moduan guk pintzelari ematen diogu, ea nork irabaziko".

## SOSLAIA


### *Naturak inguratuta*

Hondarribiko bere pisutik itsasoa ikusten badu ere, Oiartzungo zelai batean duen egurrezko txabolan ematen ditu orduak. "Natura izugarri gustatzen zait, artea baino gehiago beharbada". Etxean zakurrak eta landareak ditu eta txabolan, berriz, arkumeak. "Kanpora joaten naizenean inguruko baserritar batek zaintzen dizkit". Laku txiki bat egin nahiko luke zelaian, "nenufarrak uretan landatu eta gero haiek margotu ahal izateko". Nenufarrek lorea eman orduko urteak behar direla eta ea itxarongo duen galdetzean, "oraindik bizi bainaiz, margotuko ditut" erantzun du.

## EGUNEKO PERTSONAIA

Allande SOKARROS / Muskildi

### ***Kepa Fdz. de Larrinoa: "Historiaren bilakaera isladatzen du pastoralak"***



Argazkia: Xouse Simal

"Erritoez interes handia daukat. Hain zuzen ere pastoral eta maskaradetan asko ba da eta horretarako aztertu nahi nituen". Hitz hauek aditzera eman dizkigun Kepa Fdz. de Larrinoa ez da ezezagun bat dagoeneko Zuberoan, pastoralak edo maskarada bat antolatzen ari diren herrietan jendearekin hitzegi-

ten, oharpenak hartu edo argazkiak ateratzen ikusten bait da.

1981eko ekainean Zuberoara heldu zen bilbotar honek azteketa soziologi-koetan dihardu eta antropologia arloan nahiko aditua da. Gizajakintzari dago-kionez, Eusko Jaurlaritzaren beka bat lortuta Gipuzkoako Alkiza herrira joan zen eta bertako bizilagunen bizimolde-aren aztertzeari ekin zion: "Peru izene-ko baserrian egon nintzen eta egiazki han dut euskara ongi ikasi". Tolosalde-an kokatua den Alkizako herria zehazki zergatik aukeratu zuen eskatu diogula-rik, Kepak erran digu: "Tolosako euskararen ikastea, garai batez modan be-zala izan zen. Erran behar denez, ahozko literaturaren sorgune bat izan ohi da Tolosaldea". Azpimarra daiteke-enez, Kepak Alkizako bizimoldeaz ida-tzitako tesia argitara emango du Elkar argitaletxeak hilabete honetan bertan.

Euskal Herrian ezezik atzerrietan ere euskal gizartea aztertu du Kepak, hala nola 1987-1989 urte bitartean Kanada-rat joan zelarik. Londreseko uniberts-i-tatean Antropologia Saileko dokto-re-tzaren lehen urratsak bideratu zituen eta beste azterketa lan bati eutsi zion, 'Estatu Batuetako euskal herritarrek



egiten dituzten jaiak' gaitzat harturik. Azterlan hau ere Eusko Jaurlaritzaren eraginez martxoan agertuko dela erran digu Kepak.

Zuberoan Müskildiko herrian bizi da eta aukera hau ez da menturazkoa izan pastoralaz azterketa bat bideratzeko xedean: "nere azterlanaren egitura honela zehaztu nezake: Müskildi, Zuberoa eta Frantziako historien artean, pastoralen bitartez isladatzen diren hurbiltze eta aldentzeak, erreferentzia aldaketak eta abar". Gizarte baten ikertzeko herritarren artean erabat sartua izan behar dela eritzi badio Kepak, azterlana moldatzeko orduan, aldiz, aldentzen da bake handiko gune batzuen bila, esate baterako fraidetegi batetara. Azken idazketaren gauzatze-ko Ingalaterrara joateko asmoa duela adierazi digu.

Iaz eman ziren bi pastoraletako mus-traka eta agerraldietan azaldu zen bezala, aurtengo bietan ikusiko da beraz Kepa, jendearen artean nahiko laketa. Nahiz eta bere azterlanean diharduen oraino, pastoralaz zer eritzi zion eskatu diogularik, honako hau erran digu: "pastoralak historiaren kontzeptu bat isladatzen du eta halaber errealtatearen ikuspegi bat zehazten. Horrek du, hain zuzen, pastoralaren bizitasuna egiten, historiaren bilakaerari lotua bait da".

## SOSLAIA

### *Ikerlari olerki egilea*

Kepak ikertzaile batentzat ohizkoa ez den afizioa dauka: olerkiak egitea maite du eta gainerat gaitasun handia ematen du erakusterat horretan. Izan ere, 1983. urtean "Gauerakoan" poema sorta argitatu zuen Susa argitaletxearekin eta obra honek Gabriel Aresti saria irabazi zuen. Bestalde, Tolosako Udalak antolatutako San Juan literatura lehiaketako Olerki Sailean lehen saria lortu zuen. Azkenik, iaz Bizkaiko Foru Aldundiak ere saritu egin zuen "Urteak joan zaizkit" bere poesia bilduma.